

SANTXO AUNDIA

Eneko Aritza dogu Naparroa'ko erreinuaren sortzaille, eta Santxo Aundia gure erreinu orren goi-maillako errege.

824'garrean egin eben euskaldunak ENEKO Naparroa'ko buruzagi; eta andik berreungarrena baiño len, Europa'ko erregerik ospetsuena zan SANTXO AUNDIA.

Eta ori, berak eta bere aurreko erregeak egindako politikajokoari esker.

Zein politika joko?

Mugetako gizonen buruzagiak ezkontza-bidez, beraganatu. Ori dala ta, Erromatarrak eta arein aurreko keltak gurera sartu baiño lenago euskal-lur genduzan bazter guztiak birjaso ta beraganatu zituan SANTXO AUNDIAK.

Ona emen, Santxo Aundia'ren erreinuko mugak: Bordel'etik Soria'raino, goitik bera; eta Asturias'tik Katalunia'raino, ezkerretik eskumara.

BURDIN - AROA

vIillagarrenaren aurreko urtean eta Iruña'ko uriburuan izan zan koroatua SANTXO AUNDIA.

Bcderetzigarren gizaldi illuna istilluz eta bal-tzunez betekoa izan zan Europa guztian; Iparial-deko Wikingo praka-gorrien eta Egoaldeko arabiar muztur-baltzen eraso ta eragiñen ekiñagaitik, ba-tez be.

Naste areik zirala ta, millagarren urtean munduaren azkena zetorrela zabaldu zan bazter guztletan.

Urtegarren aretan ezkondu zan Santxo, Kastelerriko buruzagiaren alaba Munia'gaz ezkondu be.

* * *

Amar urte lenago, here Leire'ko konbentuan azi ta eziten egoan bitartean, arrabiarrak Iruña'ko inguructan ebiltzan euskal-erreinuko uriburua curakanatu gurean.

Santxo Abarka zan orduko cregca Naparroa'n.

Ipar-Euskalerrian egoan, ango inguructara sartu ziran sartu ziran Wikingoen aurka burrukan. Eta negu gorria izan arren, Auñamendi edurrez zuri-zuri egoala, Egoalderako bidea artu eban.

Abarka arinak berak eta bere mutillak jantzi, mendiak lasterka igaro, ta Iruña'ra sartuta, ango arerioak bcingo baten ondatu eta igeska jarri zituan.

Almanzor zan arabiar onein buruzagia. Sekulako kalteak egiten jarraitu eban kristiñau errietan.

Santxok, here koroatzearen irugarren urtean, here koñatu zituan Leon'go ta Kastelerriko kondea beraganatu eta Almanzor'en aurka joan zan arcikaz batera.

Soria-inguruko Katalañazor zelaietan izan zan burrukea.

Sekulako burrukea!

Almanzor'ek galdu eban gudaldia, baita here bizia be gudaldiagaz batera.

URRE - AROA

Wikingoak eta arabiarak emendik betiko urruniu eta 33 urrezko urte ederrak emon zituan SANTXO'k here erreinuaren buru lez.

Lurrak aberastu zituan, erriak jantzi, konbentu kultura-cragilleai lagundu, artu-emon aberatsen iturri zan Santiago'tarren bidea obetu, egokitu ta zaindu...

Baiña uts aundi bat egin eban criotz-zorian: ainbat kostata osotutako Euskalerrria zatitu.

Ez eban orretan euskal-lege zarra jarraitu, Frankoen lege barria baiño.

Eta orrelan, here seme zarrena zan Gartzia'ri oraingo Euskalerrria osotzen daben zazpi errialdeak 'ta Euskalerrri zan Errioxa emon cutsazan.

Bere bigarren seme zan Fernando'ri Kaste-erriko Konde-erria.

Ranimiro irugarren semeari Aragoe.

Eta laugarren eta azkenengo bere seme Gonmlo'ri Sobrarbe ta Ribagortza.

* *

Andik urte batzutara Fernando'k Kastela'ko errege egin eban here burua. Ramiro, Sobrarbe a Ribagortza here anai gazteari kenduta, Aragoe'ko errege egin zan.

Euskaldunak dira ba, Naparroa'ko erregea jide dala, Kastela ta Aragoe'ko lenengo erregeak. Euskaldunak, baita, erreinu bi oireitako lenengo z ii a gu nak.

URKIOLA'k